

2022/2023 SICUE MUGIKORTASUNA

2022ko otsailaren 11an GAUR-en SICUE programako eskaera egiteko epea zabaltzen da. Kontuan izan behar duzu nazioarteko mugikortasun programa batean plaza bat esleitura izan baduzu, ezin duzula SICUE mugikortasuna eskatu, arautegiari jarraituz.

Gogora ezazu mugikortasuna 4. mailan egiten dela **soilik**, lauhileko batean ala ikasturte osoan zehar.

GARRANTZITSUA. SICUE programak ez du inolako finantzaketarik: plaza eskatzen baduzu, esleitzen bazaizu eta gero uko egiten diozu arrazoi ekonomikoengatik, Errektoreordetzak penalizazioa ipiniko dizu.

ESKAERA EGIN BAINO LEHEN

1. **Urratsa** – Egiaztatu mugikortasuna eskatu ahal izateko Eskolako baldintzak betetzen dituzula
2. **Urratsa** – Kontsulta ezazu [gure webguneko](#) “Mugikortasun programak” atalean, norakoei buruzko informazioa.
3. **Urratsa** – Bidali itzazu zure zalantza guztiak sicue.eib@ehu.eus helbidera.

Eskaera GAUR-ean egitea (ikus “GAUR-en eskatzeko jarraibideak”):

1. **Urratsa** – Irakurri arreta handiz eskaera egiteko instrukzioak [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#).
2. **Urratsa** – GAUR > Unibertsitate trukea > Kontsultak > Trukeko mugikortasunak > Bilboko Ingeniaritza Eskola atalean norakoei buruzko informazioa aurkituko duzu.
3. **Urratsa** – GAUR > Unibertsitate trukea > Eskaerak > Trukeko programak atalean eskaera egin ahal izango duzu. Zure datu pertsonalak guztiak egiaztatu ondoren, sakatu “Eskaera berria” botoia eskaera egiteko. Eska daitekeen norakoen kopurua: 5 gehienez, lehentasunak ordenatuta
4. **Urratsa** – **Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan** (I eraikina, P1E3.2) **PAPEREAN aurkeztu behar den dokumentazioa**:
 - Baldintza-onarpena
 - Eskaera bete-betea
 - Akademi-akordioaren proposamena, eskatutako lehen bi norakoentzat
 - Eskola-espediente originala (UPV/EHUtik kanpoan ikasi baduzu soilik)
 - Hizkuntza-mailaren egiaztagiria originalak (aurkeztean, fotokopia egiten da, eta originalak itzuli egiten dira)
 - Parte-hartze ziurtagiriak (kolaborazio-jarduerak Eskolarekin)
 - Datu pertsonalen tratamendurako baimena

Dokumentazioa jasotzeko azken eguna: martxoak 4

**GOGORATU: GAUR-en ESKAERA EGITEKO EPEA
2022ko OTSAILAREN 11tik 25era ARTE DA.**